

# ZORIONAK



# URTE BERRI ON



2018ko Abendua  
(47. zenbakia)

Udal Informazio Aldizkaria

Argazkiak: Eva Lara, Javi Herrera eta M. Angel Sesma



Argitaratzen du: **Ezkabarteko Udala** • Imprimaketa: Huarte Gráfica • D.L.: NA-903/2000

## IDAZKARIAREN AGURRA

2012ko ekainean, Jesús Miguel Erburu Arbizunek (Txusek) agintea hartu eta Ezkabarte eta Olaibarreko Udaletako bete gabeko Idazkari lanpostuaren kargu egin zen. Zaraitzu Ibarreko leku ezberdinetan Idazkari egonda geroko eskarmen-tuaren jakinduriarekin heldu zitzaigun. Bere jakin-nahiak, ilusioak, hurbiltasunak eta, zer esanik ez, bere ahalmenak eta balioak itzal ahaztezina utzi dute gure artean. Pertsona oso irekia izanik udaleko langileekin, Alkatetzarekin, Zinetotzi eta Udalbatzekin... ondo konpontzen jakin izan du.

Batzuetan erabakiak gogorak eta ondo hausnarturikoak izaten dira, bere lanbide-karrerako sei urte luze gurekin eman ditu, baina beste pausu bat ematea erabaki du. Ezkabarte eta Olaibar Nafarroako hirugarren Udaletxe handienen ordeztzatuko du, Eguesibarrekoagatik. Zalantzarik gabe, soberan gaituriko duen oso erronka garrantzitsua. Gure zorionik beroena eta gure desiorik onena zure ibilbide berri horretan. Eskerrik asko denagatik, ikaragarritzko sortea izan da zurekin lan egin izana eta zu ezagutu izana.

Nahiz eta pertsona askok hala ez pentsatu, Udaletxe batean Idazkariaren zeregina ezinbestekoa eta behar-beharrezkoa da. Hori zela eta premiazkoa zen Idazkarit-



za lanpostua betetzearen beharra. Nafarroako Udalerrien eta Kontzejuen Federazioaren eta Nafarroako Gobernuako Toki Administrazioako Departamentuaren laguntzarekin, azaroan (lehenago ezinezkoa izan zen) aipaturiko lanpostua betetzeko dagozkion proben deialdia egin zen. Beraz, abendua bitartean, probak gaituriko eta gero, Joaquín Lizarraga Sanzek (Jokin) hartuko du Ezkabarte eta Olaibarreko Udalen Elkarteko Idazkaritzako lanpostua. Idazkari berriari, aldezturik, Udaletxe eta Ibar hau osatzen ditugun pertsona guztien partetik eskerrak eman eta ongi etorria ematen diogu.

## LIBURUEN MAILEGUA ETA IKASTEGIA

Ezkabarteko Udalak, eta Ibarreko auzotar guztiz eskuzabala eta boluntario baten laguntzari esker, Irun etorbideko 4. zenbakiko beheko solairuko (lehenengo medikuaren kontsultategiko) aretoa ireki du liburutegi modura erabiltzeko.

Aretoa astelehenetan, asteazkenetan eta ostiraletan 17:00etatik 20:00etara irekita egongo da.

Ignazioren ahaleginari eta nahiari esker, Ibar guztiko auzotarrentzako abian jarri da liburuaren mailegurako sistema bat. Udaleko web orrialdean [www.ezkabarte.es](http://www.ezkabarte.es) sartu besterik ez duzu behar eta eskuin aldean "Liburuaren mailegua" irakur dezakezun ikono bat aurkituko duzu, egin klik bertan eta Udalak auzotarren eta erakunde ezberdinen dohaintza bitartez lorturiko eta erabilgarri dauden liburu fondo guztia agertuko zaizu.



Herri bakoitzean postontzi bat jartzeko asmoa dago (zerbitzu hau erabilgarri dagoenean jakinaraziko da) eskaturiko eta bueltatzeko dauden liburuak uzteko. Interesa daukaten pertsona guztiei, beraien herrietatik mugitzen ibili behar gabe, gure liburutegi bitxi honetara sarrera sustatzeko eta errazteko modu bat da.

Zentroa ikasketa gela bezala ere irekita egongo da aipaturiko ordutegian. Edozein galdera edo zalantza argitzeako, helbide elektronikoa hau duzu [biblioteca@ezcabarte@gmail.com](mailto:biblioteca@ezcabarte@gmail.com)

***"Irakurmenak mundu ezezagun imajinaezinetara eramaten zaitu, Ausart zaitetz sartzera!!!"***



## ARREKO AUZO ETXEAREN INAUGURAZIOA

Urriaren 6an, obretan hiru hilabete luze egon eta gero, aurreikusita zegoen bezala, Arreko Kontzejuak Herriko Auzo Etxe berria inauguratu zuen. Txiki eta zaharkiturik geratuta zegoen leku batentzako premiazko handiagotze eta berriztatze bat. Handiagotzean eta berriztatzean Ezkabarteko Udalak 80.000€ko diru-laguntza emanez hartu du parte, eta, gainera, bera mantentzeko 400 euro jarriko ditu hilero.

Auzo Etxe berriak lehen baino askoz handiagoa den lekuan ditu taberna eta zerbitzuen gune bat. Arkitektura-oztopoen arazoak saihesteko helburuarekin, zentroak lehen solairura igo ahal izateko igogailua ere badu. Solairu honetan bi gela aurki ditzaitegu; bata, Ezkabarteko Udalak antolaturiko tailerrak eta jarduerak egiteko da; eta, bestea, "El Arrasko" aretoa, askoz ere handiagoa, ekintzak



eta ekitaldiak ospatzeko aurreikusita dago. Zentroak irekita daraman denbora labur honetan, Arreko Kontzejuak nahiko arrakastatsuak izan diren kultur-emanaldi batzuk antolatu ditu eta gure ibarreko auzotar guztiak elkartzeko gune bat dela ere ikusi ahal izan da. Bereziki helduenentzako elkargune bat da, kartetan jokatzeko txoko bat, txokolate goxoa txurroekin jateko edo hizketalditxo bat eta denbora pasatzeko besterik ez. Zatoz eta goza ezazu!.



## IBILGAILUEN ZIRKULAZIOAREN BERRANTOLAKETA ARREN

Arreko Udalak proposaturik herri honetako alde zaharrean ibilgailuen zirkulazioaren berrantolaketa gauzatu da. Horretarako, lehendik ere, arrazoibideen bitartez parte hartzeko denboraldi bat egon zen. Kontzejuaren asmoa, Itxuru kale berria ireki eta gero, alde zaharreko kale guztietan zirkulazioa noranzko batekoa baino ez izatea da gidariak erosoago ibil daitezzen eta ibilgailuen aurrez aurreko talkak saihesteko.

Badakigu edozein aldaketak gu

guztion aldeko ahalegina eskatzen duela. Beraz, Udaletik auzotar guztiak estutu nahi dira bideko seinaleek diotenari kasu egitera, bai bertikalei, bai zoruan kokaturik daudenei. Era berean, behin eta berriz esan, herri baten barrutik igarotzen ari garela, beraz, abiadurak gutxienezkoa izan behar duela. Gogorarazi aginduak ez betetzeak eta bideko seinaleek diotena hausteak salaketa eta hari dagokion isuna ordaindu beharra ekar lezakeela.



## POSTAREKIN ARAZOAK DITUZU?

Aspaldian posta banaketaren kontura kexaren bat edo beste egon da, bai auzotarren aldetik, bai Postako langileen aldetik, zeren batzuetan gutunetan agertzen diren kaleen izenak eta zenbakiak ez dira jadanik gure kaleizendegietan agertzen. Kontuan hartu behar dugu postaria ez doala bakarrik gure etxera eta ez gaituela ezta eza-gutu behar ere, are gehiago langileen aldaketak etengabe egiten ari direnean.

Posta jasotzen deneko bi puntu garrantzitsu azpimarratu nahi ditugu eta horrela arazoak saihestu.



- Derrigorrezkoa da etxe bakoitzean **postontzia eta atariaren zenbakia jarrita izatea**, hala ez bada, postariak **EZ** du gutunak uzteko betebeharririk.
- **Postariak** posta banaketa egiterakoan **duen erreferentzia** gutunen idazpuruan agertzen den **helbidea da**. Ez bazaude oso ziur zein den zuri dagokizun kalea eta zenbakia, jar zaitez udalarekin harremanetan zuri laguntzeko baikaude. Bizileku bakoitzak posta-helbide bat eta bakarra du.

Igortzen dizuten postak existitzen ez den helbide bat baldin badu, posta edo paketeria igorleari bidaliko zaio helbide ezezaguna jarri duelako. Horregatik du garrantzia helbidearen izenak eta kalearen zenbakiak.

## INBERTSIOAK AZPIEGITURETAN

Urriaren 6an ireki zituen bere atea Arreko Auzo Etxe berriak, bere berriztatze eta handiagotzean Ezkabarteko Udalak hartu zuen parte 80.000€ko diru-laguntza emanda, gainera hilero 400€ ere ematen ditu bere mantentze-lanetarako.

Urriari hasi ziren Eusa, Maquirriain, Orrio eta Cildozeko herrietara edateko uraren horniketa eta hobekuntzak eramateko azpiegituretako lanak. Azpiegitura honen kostuaren %8a Nafarroako Gobernuaren gain geratu da, eta gainerako %20a Ezkabarteko Udalak erantsiko du.

Aurreko udaleko buletinean aurreratu genuen bezala, Kontzejuetako inbertsioen barruan, Ezkabarteko



Udalak Sorauenen enparantza berri bat egin du, udaleko diru-kutxatik 23.000€ inbertiturik. Gainera, auzotarrek, auzolanean, inguruko lorategiak egiten lagundu dute. Era berean, Soraueneko Kontzejua arduratuko da enparantzaren perimetroko itxituraz eta dagozkion hiri-altzariak eskuratu eta jartzeaz. Lan hau posible izan da Soraueneko Udalaren laguntzari eta auzotar guztien elkarlanari esker.



## KIROLDEGIKO JARDUERAK BIDE HONETIK JARRAITZEN DU

Denboraldi honen hasieran izena emandako harpidedunen kopuruaren zenbakiak 2017-2018ko denboraldian hasitako aurrekoenganako lerroak gora egiten duela baieztatzen du udalak URDIri kirol-jarduera paketeen kudeaketa bat agintzean. Kasik 400 harpidedun izanik, tresna gehiago jarri dira kirol-instalazioak indartzeko. Gure kirol-instalazioei etorkizun handi-ago emateko ahalegin honetan, udala beste erakunde batzuekin akordioak egitera heldu da kirol ekitaldiak ospatzeko.

Lehenago kirol-instalazioak kudeatzen zituen enpresak kontratuaren ebazpenaren inguruan udalaren kontra jarritako auziari dagokionez, BPX Sport-ek Ezkabarteko Udalaren kontra egindako eskakizuna 40.000€ko kalte-ordainketa eskatuaz Udalaren aldekoa izan da eta BPX Sport auzi-jartzailea izan da kostuetan zigortua.





## ***Kiroldegia kokaturik dagoen lursailen aurreko jabeekin dagoen zozra.***

Lehenago ere aipatu izan dugun bezala, kiroldegia kokaturik dagoen lursailen aurreko jabeek demanda baten bitartez Ezkabarteko udalari balio justua eskatu zioten, auzi-jartzaileentzat 900.000€koa zena. Bien arteko auzi-prozesu luze eta gogor baten ondoren, oraintsu, eta epai baten bitartez, Ezkabarteko udala 450.000€ ordaintzerara zigortua izan da. Onarturiko zor honetatik, gaur egun Ezkabarteko udalak 300.000€ ordainduta ditu, 150.000€ko diru kopurua ordaintzeko gelditzen delarik, hau 2019ko maiatzean ordaintzea aurreikusita dago auzi-jartzailearekin adosturiko ordainketaren zatikapen bati esker interesak ordaintzen jarraitu beharrik gabe.

Nahiz eta denek jakin, batez ere udaleko talde politikoek, egunen batean, lehenago edo geroago gertatuko zela, ordainketa hau kolpe gogorra izan da Udalak dituen diruentzat. Batzuk aurpegira botatzen dute kudeaketa txar baten ondorioa dela, baina Alkatetza pozik dago ahal izan den eta ondoen egin duelako tratua, eta emaitzak askoz txarragoak izan zitezkeelako udaleko diru-kutxarentzako. Etxeko ekonomian bezala arazo bat dator kizunean aurre egin beharra baino ez daukazu. "Lehentasuna eman eta aurre egin" tresna egokiak eta eskura ditugunak erabiliz, eta adeitsuak izanda, eta Udal modura jasaten dugun guztiarekin legezkoak izanda, batez ere.



  
**MUNICIPAL EZKABARTE  
E UDAL KIROLDEGIA**



## PUNтура APUNTATZEN ZARA?

Adin nagusikoa bazara, denbora libre baduzu eta puntua egiten ikasteko edo hobetzeko nahia baduzu, bi galtzorratz, zamuka bat eta ikasteko gogo baina ez duzu behar.

"Taldea ateratzen bada", Arreko Auzo Etxean urtarrilaren 4tik aurrera astelehenean 17:00etatik 19:00etara eman go da jarduera.



Eman ezazu izena Ezkabarteko Udalean edo 948 330341 telefonoaren bitartez, izena emateko epea 2019ko urtarrilaren 10era arte.

**A ÍSLA tu casa y  
A HORRA**

**Aislamiento  
térmico y acústico**

**MADE IN  
NAVARRA**

Aislanat, único aislante de celulosa  
**fabricado en Navarra.**

Aisla tu casa con celulosa, **en un día,**  
**sin obra,** a un **bajo coste** y con un  
producto totalmente **ecológico.**

**50% ahorro      En un día      Sin obra**

**A AISLANat**  
AISLANTE DE CELULOSA

**BIOKLIMA  
NATURE**

948 33 00 15 -627 41 22 69  
[www.aislantesaislanat.es](http://www.aislantesaislanat.es)

Pol. Morea Norte  
Calle B - 27  
31191 - Beriáin (Navarra)

# KOLONEKO MINBIZIA GOIZ DETEKTATZEKO PROGRAMA

Beste urte baten ere Nafarroako Gobernuak Osasun Sailatik Udalak gonbidatuak izan gara KOLONEKO MINBIZIA DETEKTATZEKO PROGRAMAREN hedapenean parte har dezagun. Helburua, minbizi honek ekar lezakeen intzidentzia eta heriotza-tasa gutxitzea da. Laster, 50 eta 69 urte arteko pertsonak dauden etxeetara minbizi honekin zerikusia izan dezaketen arrisku patologiak edo kasu posibleak hautemateko test bat egiteko helburua duen gonbidapena igorriko da.

Koloneko minbizia Nafarroako minbizirik maizkoenetakoa da.

Goiz antzematen bada, %90ean baino kasu gehiagotan senda daiteke.

Koloneko minbizia Goiz Detektatzeko Programak minbizia garaiz diagnostikatzeko proba erraz bat egiteko aukera ematen du.

Proba zu bizi zaren ingurura heltzen denean, 50 eta 69 urte artekoa bazara gonbidapen gutun bat jasoko duzu.

Egin kasu gonbidapenari...  
**TEST SOIL BATEK BIZITZA  
SALBA DIEZAZUKE**



**ELIGE90**  
PROGRAMA DE DETECCIÓN  
PRECOZ DE  
CÁNCER DE COLON

Nafarroako  Gobierno  
Gobernua  de Navarra



## JAIOTZAK

IRUNE ASTIZ OROZ (ORIKAIN)  
UNAI ONECA GOÑI (ZILDOTZ)  
JIMENA MANRIQUE MERCADER (ARRE)  
EIDER REDIN MAYO (MAKIRRIAIN)  
ILARGI OLLETA VILCHEZ (ZILDOTZ)

## HERIOTZAK

CARMEN GARCIANDIA GORRITI (SORAUREN)  
JULIA OCHOA VALENCIA (ZILDOTZ)  
FERMIN GARIJO VISCARRET (ARRE)  
JOSÉ GURBINDO EZCURDIA (ARRE)  
JUAN CARLOS GUTIERREZ GORDILLO (ORIKAIN)  
JUAN MARTINEZ RODRIGUEZ (ARRE)  
JOAQUINA GOÑI GONZALEZ (ARRE)  
FELIX CARLOS MARTINEZ SADORNIL (ARRE)

## TELEFONO INTERESGARRIAK

Ezkabarteko Udala (Orikain)	<b>948 330 341</b>
Kexak eta iradokizunak	<b>948 012 012</b>
Genero indarkeriaren aurka	<b>016</b>

Bidez Osasun Etxeak (Arre)	<b>948 332 335</b>
Ezkabarte kiroldegia (Azotz)	<b>948 330 341</b>
Publizitatea Aldizkarian	<b>610 628 967</b>